

# NAFARROAKO KRONIKA: ORVINA A-K TXAPELDUN IZATEKO AUKERA ZERTXOBAIT HANDITU DU.

2006.go azaroaren 11n Nafarroako Taldekako Xake Txapelketako seigarren jardunaldia jokatu zen.

## MAILA NAGUSIA.

**Orvina A-k Lizarrako Alekhine taldea jipoitu zuen: 0-8.** Aurreko astean betiko aurkariaren aurka porrot egin ondoren, sailkapena konpondu behar zuen. Ederki konpondu zuen. Bide batez, Alekhine jaisteko bidean jarri zuen, azken honi Oberena A-ren aurkako neurketa besterik ez zaiolako gelditzen. Hauexek izan ziren partidarik erakargarrienak:

Gorka Argandoña (Alekhine) – **Unai Garbisu (Orvina A): 0-1.**

**Miguel Rada (Orvina A)** – Iñigo Ganuza (Alekhine): 1-0.

Ibai Lakunza (Alekhine) – **Sergio Navarrete (Orvina A): 0-1.**

**Juan Jesús Mindegia (Orvina A)** – José Luis Casado (Alekhine A): 1-0.

**Oberena A-k ere azeleragailua zanpatu zuen: 0'5-7'5 irabazi zion Mikel Gurea Fon-Clima taldeari.** Burlatako taldea hirugarren sailkatua izanik, meritua handikoa izan zen garaipena. Dena den, Jesús De la Villa Nazioarteko Maisuak puntu erdi garrantzitsua utzi zuen Davil Arjol gazte distiratsu bezain polemikoaren aurka. Txapelketa hortik joan dakioke Oberena A-ri. Orvina A-k baino puntu eta erdi gehiago egin beharko du azkeneko jardunaldian. Zaila, baina ez ezinezkoa. Txapelketa ez dago bukatuta. Emaizta batzuk:

David Arjol (Mikel Gurea Fon-Clima) – Jesús De la Villa (Oberena A): 0'5-0'5.

**Miguel Navarro (Oberena A)** – Pedro Forján (Mikel Gurea Fon-Clima): 1-0.

Imanol Martínez Salas (Mikel Gurea Fon-Clima) – **Mikel Huerga (Oberena A):**  
0-1.

Ángel Vilchez (Mikel Gurea Fon-Clima) – **Borja Zamarbide (Oberena A): 0-1.**

**Jesús Luis Aguinaga (Oberena A)** – Iker Irañeta (Mikel Gurea Fon-Clima): 1-  
0.

**Tuteran ustekabea gertatu zen eta Paz de Ziganda A-k garaipen garbi eta garrantzitsua lortu zuen Santa Ana A taldearen aurka: 2'5-5'5.** Hauek izan ziren emaitza batzuk:

Patxi Sesma (Santa Ana A) – **Eduardo Burguete (Paz de Ziganda Ikastola A): 0-1.**

Iker Ojer (Paz de Ziganda Ikastola A) – Víctor Rodríguez Dobladez (Santa Ana A): 0'5-0'5.

Carlos Francisco Soler (Santa Ana A) – **Adrián Leranoz (Paz de Ziganda Ikastola A): 0-1.**

**Juan Pablo Alegre (Paz de Ziganda Ikastola A)** – Mauricio Torres (Santa Ana A): 1-0.

**Ustekabea ere, hein batean, gertatu zen Orvinan. Azkeneko postuan zihoan Nuevo Casinok 2'5-5'5 irabazi zion Orvina B-ri.** Dena den, talde nahiko sendoa atera zuela kontutan hartuta, ez da hain harritzekoa. Azkenean, ematen du beteranoen talde hori salbatuko dela, Txapelketa osoan kili-kolo ibili ondoren. Eraitza batzuk:

Gonzalo Mombiela (Orvina B) – Pedro Viñal (Nuevo Casino): 0'5-0'5.

**Joaquín Antúnez (Nuevo Casino)** – Amaia Iza (Orvina A): 1-0.

Eduardo Bueno (Orvina A) – **José Manuel Redín (Nuevo Casino)**: 0-1.

**Rafael Ruiz Escobar (Nuevo Casino)** – Jonás Blanco (Orvina B): 1-0.

**Azkeneko jardunaldian neurrak erabakigarriak izanen dira.**

Orvina A – Santa Ana A, alde batetik, eta Oberena A – Alekhine, bestetik, titulua jokoan izanen da. Santa Ana salbatuta dagoela ematen du eta Alekhine kondenatuta. Beraz, bi handien sarraskia aurreikus daiteke, baina ez du inork hutsik egingen?

Nuevo Casino taldeak, eraitza onen bidea hartu ondoren, azkeneko ahalegina egin beharko du Mikel Gurea hirugarren sailkatuaren aurka. Jaisteko promozioa saihestea izanen du helburu.

Lan bera Paz de Ziganda eta Orvina B-rentzat. Atarrabiakoek 2'5 puntuko abantaila dute eta, teoriarik, nahiko izan beharko du.

Sailkapena horrela dago:

- 1) **Orvina A – 40 puntu.**
- 2) Oberena A – 38'5 puntu.
- 3) Mikel Gurea Fonclima – 21'5 puntu.
- 4) Santa Ana A – 21 puntu.
- 5) Paz de Ziganda Ikastola A – 19'5 puntu.
- 6) Orvina B – 17 puntu.
- 7) Nuevo Casino – 17 puntu.
- 8) Alekhine – 17 puntu.

## **LEHENENGO MAILA.**

Goikaldean estutu da sailkapena. Baina ziur aski orain jokoan dagoena da igotzeko sustapena jokatzeko eskubidea ematen duen bigarren postua.

**Sancho el Fuerte-Tiebas taldeak Oberena B liderrari irabazi zion: 4'5-3'5.** Eraitza ona, baina motza. Partida baten faltan, 2'5 puntu zanga handiegia izan daitezke. Hauexek, eraitza batzuk:

Roberto Pinilla (Sancho el Fuerte-Tiebas) – Pedro Unanua (Oberena B): 0'5-0'5.

Gregorio Sola (Oberena B) – Juan de Dios Casado (Sancho el Fuerte-Tiebas): 0'5-0'5.

**Carlos Saenz (Sancho el Fuerte-Tiebas)** – Miguel Garjón (Oberena B): 1-0.

Antonio Lisarri (Oberena B) – **Javier Larrea (Sancho el Fuerte-Tiebas)**: 0-1.

**Jesús María González Pabollet (Sancho el Fuerte-Tiebas)** – Luis Inglés (Oberena B): 1-0.

**San Juan A azkeneko txanpa oso ikusgarria egiten ari da. Azkena geratu den Runa taldeari 1'5-6'5 irabazi zion.** Talde hori, jokalaria batzuren faltan, ahulduta dago, baina San Juan A taldearen sendotasuna nabarmendu beharra dago, hala ere. Momentuz, bigarren postua harrapatu du. Eraitza batzuk:

Iñaki Barbería (Runa) – **Miguel Argaya (San Juan A)**: 0-1.  
**Carlos Pérez Marchal (San Juan A)** – Félix Juanco (Runa): 1-0.  
**Ramón Estevez (Runa)** – José Zaratiegui (San Juan A): 1-0.  
**Francisco Sánchez Salazar (San Juan A)** – Alfredo Sola (Runa): 1-0.

**Oberena C-k problemarik gabe eutsi zion laugarren postuari, Tuteran Santa Ana B-ri 3-5 irabazita.** Dena den, bertako taldearentzat 3 puntu horiek urrezkoak izan ziren jaitsiera saihesteko. Eraitza batzuk:

Tomás Ozaita (Santa Ana B) – Javier Yaben (Oberena C): 0'5-0'5.  
**Aaron Mateo (Oberena C)** – Rafel Garrido (Santa Ana B): 1-0.  
José Ángel Carcavilla (Santa Ana B) – Carlos Gabriel Rodríguez Collados (Oberena C): 0'5-0'5.

**Zaldi Beltzak 2'5-5 galdu zuen Gazte Berriak-en aurka.** Jaisteko promozioa saihesteko 2'5 puntu horiek aski izan daitezke, baina ahalegindu beharko du azkeneko jardunaldian. Gazte Berriak taldeak zortzigarren mahaian lortutako berdinketa galdu zuen bere jokalaria lizentziarik ez zuelako. Baita ere puntu erdiko zigorra jaso zuen. Eskerrak sailkapeneko toki lasaian dabilzan. Eraitza batzuk:

Iñaki Sasiain (Zaldi Beltza) – Alfonso Cemborain (Gazte Berriak): 0'5-0'5.  
**Iñaki Esparza (Gazte Berriak)** – Iraitz Mauleon (Zaldi Beltza): 1-0.  
Koldo Flores (Zaldi Beltza) – **José María Sorozabal (Gazte Berriak)**: 0-1.  
**Julio Berango (Gazte Berriak)** – César Razkin (Zaldi Beltza): 1-0.

Sailkapena horrela dago:

- 1) Oberena B – 30'5 puntu.**
- 2) Sancho el Fuerte – Tiebas – 28'5 puntu.
- 3) San Juan A – 28 puntu.
- 4) Oberena C – 27 puntu.
- 5) Gazte Berriak – 23'5 puntu.
- 6) Zaldi Beltza Xake Taldea – 20 puntu.
- 7) Santa Ana B – 17 puntu.
- 8) Runa – 15'5 puntu.

### **Azkeneko jardunaldian postuak zehaztuko dira.**

Oberena B-k Runari irabazi behar dio eta igoera lortu, bide batez Runa jaitsiaraziz.

San Juan A-k oso aukera ona du bigarren postua harrapatzeko. Zaldi Beltza ez da fin, baina zerbait egin beharko du azkenurrekoa ez geratzeko.

Sancho el Fuerte-Tiebas taldeak zailagoa du Oberena C-ren etxean jokatzeko baitu. Hala ere, saiatuko da.

Gazte Berriak taldeak partida lasaia du Santa Ana B-ren aurka. Hauek, ordea, jaitsieraren mamua uxatu nahian arituko dira.

## **BIGARREN MAILA.**

Arrano Elkartea A-k emaitza eskasa lortu zuen Orvina C-ren etxean (1'5-2'5) eta lidergoa galdu du. Oberena D-k 4-0 irabazi zion Alaitz Xake Taldeari eta orain faborittoa da igotzeko (oso argi ez badago ere).

Lehia polita izanen da datorren larunbatean Arranoren lokalean. Arrano Elkartea A-k Berriozarko talde gazte eta etorkizun handikoa jasoko du, puntu guztiak irabazi beharrean. Arrano Elkartea B saiatuko da puntu erdia gutxienez urratzen Oberena D-ren aurrean. Arrano Elkartea C-k ere 4 puntuak lortu beharko ditu Alaitz taldearen aurka, A taldeari laguntzeko, horrela ezberdinketan Oberena D-ren Bucholz-a kaltetuko bailuke.

Larre B taldeak 3-1 irabazi zion Mikel Gurea Iruña-Motor taldeari. Horrela, bi taldeak igotzeko aukerarik gabe geratu dira.

Emaitza batzuk:

**Enrique Cobos (Oberena D)** – Jesús Mena (Alaitz Xake Taldea): 1-0.

Adrián Ortega (Orvina C) – **Joseba Otano (Arrano Elkartea A)**: 0-1.

**Jonathan Chamorro (Orvina C)** – Iñigo Saenz (Arrano Elkartea A): 1-0.

José Antonio Apesteguia (Larre B) – Daniel García Mina (Mikel Gurea Iruña-Motor): 0'5-0'5.

Horrela dago sailkapena:

- 1) **Oberena D – 17 puntu.**
- 2) Arrano Elkartea A – 17 puntu.
- 3) Larre B – 14'5 puntu.
- 4) Berriozar – 14'5 puntu.
- 5) Mikel Gurea Iruña-Motor – 14 puntu.
- 6) San Juan B – 14 puntu.
- 7) Arrano Elkartea B – 13 puntu.
- 8) Orvina C – 13 puntu.
- 9) Arrano Elkartea C – 12'5 puntu.
- 10) Alaitz Xake Taldea – 12 puntu.
- 11) Oberena E – 10 puntu.
- 12) Larre A – 9'5 puntu.
- 13) Zizur-Ardoy – 9 puntu.
- 14) Mikel Gurea Burlada – 8 puntu.
- 15) Paz de Ziganda Ikastola B – 7'5 puntu.
- 16) Gazte Berriak B – 7 puntu.
- 17) Mikel Gurea Sub12 – 5'5 puntu.

**2006-11-11.**

**Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.**